



Euskal Herria Baiko (EH Bai) Beñat Elizondo hautagaia Biriutuko autobidearen ordainlekuan, jendarmekin kalakan eta xextran.

Iparraldeko ezkerrek eskuina garaituko duen esperoan

Hauteskunde Presidentzialen zurrunbiloa baretu gabe, Legebiltzarrerako bozen kanpainan murgildu dira Frantziako hiritarrak. UMP eskuindarraren diputatu hautagaiak gailentzen ari dira inkestetan PSko hautagaien aldean. 37 hautagai lehiatzen ari dira Ipar Euskal Herria hartzen duten hiru hauteskunde barrutietan. Hiru diputatu-aulki daude jokoan. Ohi bezala, bi itzulitan erabakiko dira euren irabazleak: ekainaren 10ean eta 17an. Hiru barrutietan bigarren itzulia burutu behar izatea ezkerren aitzinamenduaren seinale litzateke.

MIKEL ASURMENDI

Argazia: Gaizka Iroz

Txapela

buruan
to ibili munduan



Narrika, 18. Donostia

telf. 943428299 www.txapelaburuan.com

BIRIATUKO autobidearen ordainlekuan antzeman da, zenbait egunetan Euskal Herri osoan bizi izan den hauteskunde giroa. Jendar-meekin xextran dagoen txapelduna Euskal Herria Baiko (EH Bai) Beñat Elizondo hautagaia duzu; 6. barrutian aurkezten da. Gertakariaren biharamunean, Frantziako presidente Nikolas Sarkozy Espainiako presidente Zapaterorekin bildu zen Madril.

Hiru barruti Iparraldean

Ipar Euskal Herria hiru barrutien barnean sartzen da, alabaina hautetako bat, laugarrena, Biarnorekin batera partekatua da. Frantziako Iraultzak utzitako legatu historikoa da. 4. hauteskunde barrutiko egungo diputatua UDFko Jean Lassalle biarnesa da. Aldion, UDF-MoDem alderdiaren izenean aurkezten da. François Bayrou-ren gizona. Presidentzialetan Bayrouk 4. barrutian erdietsi zituen bozak kontuan harturik bera da faboritua. Ziur aski, PSko Jean-Pierre Domicqekin lehiatuko da bigarren itzulian. EH Bai-ren bozemaileek (Leonie Agergarai hautagaiburua izaki) erabaki lezakete hurrengo diputatuaren izena.

5. barrutian UMPko Jean Grenet (Baionako auzapeza) izan da diputatua. Bera da faboritua. Alta bada, presidentzialetan Ségolène Royalen PSk UMP gaintitu zuen Baionan, azken urteotako joera politikoa hautsiz. Barruti honetatik PSko Jean Espilondo diputatu ohiak ken liezaioke aulkia Greneti. EH Bai (Migel Torre buru duen) koalizioaren bozen gainera, LCR, Berdeak eta PCFko bozemaileek erabaki lezakete bigarren itzulian.

6. barrutiko egungo diputatua UMPko Daniel Polou da, Urruñako auzapeza. UMPko hautagaiburua alabaina Michèle Alliot-Marie da. Barne ministro berria. Zalanztarik gabe bera da faboritua, baina zalanztarik gabe ere, berak ez du betekote Legebiltzarreko aulkia. Demokraziaren sehaska omen da Frantzia, baina antza, demokrazian nagusi denak bere gisara moldatzen du berbera, sistema alegia.

Euskal Herria Bai (EH Bai)

Enbata mugimenduaz geroztik, ez ziren abertzaleak batera aurkezten Iparraldean. Ez da guztiz horrela, EAJ-PNB alderdia koaliziotik kanpo geratu baita. ABk, Eak eta Batasunak osatua da EH Bai. EAJ barnean ez izatearen arrazoia *euskal gatazka* da. Paradoxikoa da gero, Batasunak eta Eak ez dute Hegoaldea eta Iparraldea bereizten, hauteskundeak iritsita bai ordea. Aldiz, *gatazka* dela-eta, Euskal Herria bat da EAJrentzat.

EAJk UDF-MoDemeko hautagaiak sostengatuko ditu. Hauteskundeetan doakion berezko espazioa hautatu du, naturalena, naski.

Gatazkaz harago

Edonola ere, hitz hauek ilustratzeko paratu dugun argazkiaz harago doaz Frantziako Estatuko bozak. Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan –Biarnoko zatia barne– 37 dira hautagaiak, eta hiru izanen diputatu. Zentro-eskuineko diputatuak gailendu dira historikoki. Azken urtetan haatik, ezkerak aurrera egin du Iparraldean. Eskakizun sozialek gero eta indar handiagoa dute, etxebizitzaren arazoa eta azpiegituren gainera eztabaida, konparazione. Nafarroa Beherean gainti eraiki nahi den autobideak, A-63aren zabaltzeak eta LGV burdinbide berriak ezkerreko sektoreak mugiarazi ditu. Diputatuek jarrera hartu behar dute azpiegitura hauen aurrean. UMP eta UDF-MoDemeko hautagaien jarrerak ezagunak dira, PSko hautagai guztienak berriz, ez. LCRk, PCk, Berdeek eta EH Bai koalizioak ez dute erraz sostengatuko PSko ezein hautagai bigarren itzulian, CADEK (Ingurumenaren defentsan ari den kolektiboak) egin dituen eskaerei kasu egin ezean.

Anartean, Royal eta Sarkozyren arteko zeingehiagoka itzuli da Pariseko eszenara. Lehenak, presidentzialetan ez bezala, Laurent Fabius eta Dominique Strauss-Kahn pisuzko alderdikideak bildu ditu kanpainako estrainako ekitaldian. Bigarrena, Errepublikako presidente izan arren, hots, hiritar guztiena, UMPko hautagaien aldeko kanpaina sostengatzen hasi da fermuki. ■

Istilu

**Jantziak,
osagarriak...**

**Deitu eta katalogoa
eskatu !!!**

615 73 21 12

www.istilu.com